

DBHKO 1. MAILAKO IKASLEAK "ETA EREINGO BAGENU" LEHIAKETAN PARTE HARTZEN ARI DIRA

DBHko 1. mailako ikasleak "Eta ereingo bagenu" lehiaketan parte hartzen ari dira. Loreontzi bat apaindu dute.

Elkarbizitza, errespetua eta baikortasuna tankerako baloreak eta konpromisoak lantzea helburu duen ekimena herriko ikastetxe ezberdinetan garatu ondoren, parte hartu duten ikasleek prestatutako loreontzien erakusketa antolatatu dute Kultura Etxean, maiatzaren 27a bitartean, 17:00etatik 20:00etara.

Izan ere erakusketara hurbildutako bisitari guztiek lanak bozkatzeko aukera izango dute, parte hartzeagatik sari bat ere eskuratzeko aukera lortuz.



Animatu eta hurbildu ezagutzera Ikastolako ikasleek aurkeztutako lana!

LAUDIO IKASTOLAK LH3KO AZTERKETARI PLANTO!

Laudio Ikastolak Lehen Hezkuntzako 3. mailako azterketari planto egitea erabaki du. Artezkari Batzordeak hala berretsi berri du Batzar Orokorrak eta irakasleria biltzen duen Klaustroak LOMCeren aurka azaldutako erabakiak garatuz.

Hortaz, bat egiten dugu hezkuntza komunitatea oro har agertzen ari den planto jarrerarekin. Gure eskualdean, Aiaraldean, 12 ikastetxe agertu da azterketaren aurka Laudion, Amurrion, Orozkon, Urduñan, Aiaran, Artziniegan eta Arrankudiagan.

GAZTEEN ARTEKO HARREMANAK ETA TEKNOLOGIA BERRIAK

Gurasoentzako prestakuntza saioa ekainaren 15ean Kultura Etxean

Teknologia berriek gero eta garrantzia gehiago dute ikasleen egunerokoan eta ezinbesteko lan tresna bilakatu dira Ikastolako jardunean.

Beraien erabilpena baina ez da soilik eremu akademikora mugatzen eta gazteek gero eta gehiago erabiltzen dituzte beraien arteko harremanetan.

Gurasoei zuzendutako prestakuntza saioa prestatzen ari da Ikastola guzti honen inguruko hausnarketa partekatzeko.

H i t z o r d u a ekainaren 15ean, asteazkena, izango da Laudioko Kultura Etxean 17:30ean.

IKASTOLAKO ZOZKETA

Ikastolako zozketan saridun suertatutako zenbakiak: 1- 12.866, 2- 3.259, 3- 3.458, 4- 5.200, 5- 14.315, 6- 270, 7- 8.809, 8- 4.289, 9- 4.302. Zorionak irabazle guztiei.

Aparteko giroa izan genuen larunbatean ospatutako Ikastolako jaian. Antolatzaileek biziki eskertu nahi dute laguntzaileek egindako lan bikaina.

EL ALUMNADO DE 1º DE ESO PARTICIPA EN EL CONCURSO "ETA EREINGO BAGENU"

El alumnado de 1º de Eso ha decorado una maceta para participar en el concurso "Eta ereingo bagenu".

Tras desarrollar esta iniciativa que trabaja valores y compromisos como la convivencia, la tolerancia o el optimismo, se ha preparado una exposición con las macetas preparadas por el alumnado de todos los centros participantes en la Casa de Cultura de Laudio hasta el 27 de mayo en horario de 17:00 a 20:00.

Todas las personas que se acerquen a la exposición podrán votar las obras presentadas obteniendo así la opción a participar en el sorteo de un



premio. Anímate y acércate a conocer el trabajo presentado por el alumnado de la Ikastola.

LAUDIO IKASTOLA SE PLANTA ANTE EL EXAMEN DE 3º

Laudio Ikastola ha decidido plantarse ante la prueba de 3º de Educación Primaria. El Consejo Rector ha ratificado esta decisión desarrollando así los acuerdos contra la LOMCE adoptados por la Asamblea General y el Claustro del profesorado.

Así, nos unimos al plante que se está extendiendo en la comunidad educativa. En nuestra comarca, Aiaraldea, ya son 12 los centros que se han posicionado en contra de la prueba en Laudio, Amurrio, Orozko, Urduña, Aiara, Artziniega y Arrankudiaga.

LAS RELACIONES ENTRE JÓVENES Y LAS NUEVAS TECNOLOGÍAS

Sesión formativa para padres y madres el 15 de junio en la Casa de Cultura

Las nuevas tecnologías tienen una gran importancia dentro de la actividad diaria del alumnado en la Ikastola.

Su utilización sin embargo no se limita al ámbito académico y los y las jóvenes cada vez las utilizan más en el ámbito de sus relaciones personales.

La Ikastola está preparando una sesión formativa sobre este tema dirigida a madres y padres.

La cita será el 15 de junio, miércoles, en la Casa de Cultura de Laudio a las 17:30.

RIFA DE LA IKASTOLA

Los números premiados en la rifa de la Ikastola han sido: 1- 12.866, 2- 3.259, 3- 3.458, 4- 5.200, 5- 14.315, 6- 270, 7- 8.809, 8- 4.289, 9- 4.302. Zorionak a las personas agraciadas.

En la fiesta del sábado tuvimos un ambiente inmejorable y la organización quiere felicitar en especial a todas las personas que colaboraron en su desarrollo.